



# KIROLA PROFESIONALIZATZEA. BAI, BAINA NOLA?

*LABURPENA ETA ONDORIOAK*

Deustuko Unibertsitatea. Donostian, 2015eko abenduaren 15ean

Luis V. Solar Cubillas



**Jardunaldiaren laburpen- eta ondorio-dokumentua:**  
***KIROLA PROFESIONALIZATZEA. BAI, BAINA NOLA?***

**Jardunaldiaren data eta tokia:**  
Deustuko Unibertsitateko Donostiako Kanpusa. 2015eko abenduak 15

**Jardunaldiaren antolatzaileak:**  
Kirolaren Euskal Eskola (Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendaritza)  
Euskal Herriko Soin Iharduera eta Kirolaren Zientzietako Lizentziatuen Elkargo  
Ofiziala

**Jardunaldiko kolaboratzaileak:**  
Deustuko Unibertsitatea  
Gipuzkoako Foru Aldundia  
KAIT

**Dokumentuaren egilea:**  
Luis V. Solar Cubillas

**Dokumentuaren edizio-data:**  
2016ko martxoan

## **1. SARRERA**

## **2. JARDUNALDIKO MINTZALDIAK / HAUSNARKETAK**

- IREKIERA
- GAITZAT «GIZA BALIABIDEEN EGOERA KIROLEAN» DUEN AZTERLANAREN AZALPENA
- 1. HITZALDIA: «LANBIDEEN PROFESIONALIZAZIOA. GIZARTE-HEZITZAILEEN KASUA»
- 2. HITZALDIA: «JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN LANBIDE-EGOERA ETA -JARDUNA ETA LANBIDEAREN PROFESIONALIZAZIOA»
- ZER EGIN DEZAKEGU GUZTION ARTEAN KIROLA PROFESIONALIZATZEKO?
  - 1. MAHAI-INGURUA. PERTSONAK
  - 2. MAHAI-INGURUA. KIROL ERAKUNDEAK
  - 3. MAHAI-INGURUA HERRI ERAKUNDEAK

## **3. BUKATZEKO, AZKEN HAUSNARKETAK**

# 1. SARRERA

Kirola, eskolakoa eta nagusiki federazioek antolatutakoa, boluntarioen eskutik garatu izan da batik bat, eta haien lana funtsezkoa izan da –eta funtsezkoa da oraindik– kirola gaur egun ulertzen dugun bezala posible izateko.

Dena dela, sektoreko adituek aspaldi adierazi zuten kirolak aurrez aurre duen erronka handia, handiena akaso, profesionalizatzea dela. Hainbat faktoreren ondorio da hori: erakundeek eta entitateek kalitatezko kirola eskaintzeko borondatea erakutsi dute, gero eta pertsona gehiago dago kirolaren alorrean unibertsitate- eta lanbide-prestakuntza duena, egungo gizarteak ez du lehen bezain beste parte hartzen borondatezko jardueretan, eta, horrez gain, erabiltzaileek eurek ere zerbitzuak eta jarduerak gogobetegarriagoak izan daitezten eskatzen dute.

*Zergatik da garrantzitsua eskola-kiroleko, kirol federatuko edo guztiontzako kiroleko entrenatzaileen, monitoreen, zuzendari teknikoen edo koordinatzaileen lan-arloa profesionalizatzea?*

Gure iritziz, galderaren erantzuna kirol-zerbitzuen gaikuntza premian dago. Izan ere, profesionalen jarduna non gertatzen den (ikastetxea, kirol-kluba, gimnasio pribatua, udal kirol-zerbitzua edo beste edozein), zerbitzuak pedagogia-, kultura-, harreman- eta osasun-ñabardura garrantzitsuak ditu.

Prestakuntzak eskatzen duen kalitate-bermea, kirol-ohitura iraunkorren eraketa edo osasuna ezin dira boluntarioen esku utzi. Onkeriak edo «buenismoak» eskola-kirola bertan behera uzteko egoerak areagotzen ditu eta kirolek aspaldi alboratuta beharko luketen ohitura txarrak baino ez ditu ekartzen, esate baterako, bizi-ohitura osasungarrien alde egin ordez, kalitate potentzialaren alde egitea.

Bestalde, eta adierazitakoaren ildo beretik, kirolerako gaitasuna garatzeko profesionalizazio tekniko irmoa behar da, hartara kirolaria, entrenatzailea eta haien ingurukoak frustra ez daitezten.

«Boluntarioak dira, ezin zaie asko eskatu» argumentua ez da, inondik inora, onargarria: ikaskuntza, aurrerabidea eta osasuna argudio sendoak dira kirolaren lan-arloaren profesionalizazioaren premia larria eskatzeko.

Zerbitzua hobetzeko, profesionalizatzea ezinbestekoa da, hau da, BEZa sortzen duen, PFEZa atxikitzen duen eta lan-araudiari loturik dagoen lan- eta ekonomia-alorra eratzea. Azken batean, ekonomia sustatuko duen alorra izan behar du, lan-

poltsak ezkututzen ez dituen eta merkatuko legeak bete behar dituen beste edozein zerbitzua dituen eskakizunen balorazio berberari lotzen zaiona.

Bada profesionalizazioaren alde egiteko beste arrazoi bat: aspaldi sortu ziren kirolaren inguruko ikasketak eta prestakuntza, hasi Lanbide Heziketatik eta Unibertsitateko Graduraino; eta ikasketa horiek hor daude, hain zuzen, kirolak, eremu osoan, ikasketak justifikatzen dituen «corpus akademikoa» duelako. Bestalde, administrazioak ikasketa horiek eskaintzeko eta diruz laguntzeko behar adina eskari dago.

Ulergaitza da sektore jakin bateko profesionalak prestatzeko titulazio ofiziala duten eta finantzaketa publiko handia jasotzen duten ikasketak eratzea eta,aldi berean, administrazioak berak, beste arrazoi batzuen artean beharrezko lan-araudirik ez dagoelako, sektorea boluntarioen esku uztea.

Kirola profesionalizatzeko premiaren arrazoietan sakontzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Boluntarioei buruzko legeak (ekainaren 25eko 17/1998 Legea) 2. artikulua «e» hizkian dioena ekar dezakegu: *«Pertsona fisikoek aurrera eramaten dituzten interes orokorreko ekimenen multzoa da boluntarioria, ekimen horiek honako baldintza hauek betetzen badituzte:.....e) Ordaindutako zerbitzu profesionalak inola ere ez ordezkatzeara».*

Hortaz, kirolaren lan-esparrua oro har profesionalizatzeko premia egon badago, eta eskola-kirolak eta kirol federatuak behar bezala funtziona dezaten boluntarioak hein handi batean beharrezkoak badira ere, ezinbestekoa da bi eremu horiek, profesionala eta borondatezkoa, ongi bereiztea.

Kirolaren profesionalizazioa. Bai, baina nola? Halako izen iradokitzailea izenburu hartuta, 2015eko abenduaren 15ean, Deustuko Unibertsitateko Donostiako campusean, gaur egungo egoerari buruzko hausnarketarako eta eztabaidarako jardunaldiak egin ziren. Antolatzaileak Kirolaren Euskal Eskola (Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendaritza) eta Euskal Herriko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Lizentziatuen Elkargo Ofiziala (COLCAFID) izan ziren, Deustuko Unibertsitatearen, Kirol Arlorako Iritzi Taldearen (KAIT) eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren lankidetzarekin.

## ABIAPUNTUA

Kirolak mikroenplegu egoera berezia bizi du eta sektoreko hainbat profesionali eragiten dio, besteak beste, eskola-kiroleko entrenatzaileei, eliteko entrenatzaileei, entrenatzaile pertsonalei, Physical Fitnesseko monitoreei, prestatzaile fisikoei, birradaptatzaileei eta sektoreko profesionalek dituzten beste hainbat lanbide-irtenbideri.

Euskadiko eskola-kirolen eskaintza indartsuak, Foru Aldundiek sustatuta, eta eskola-kirolak ikastetxeetako Guraso Elkarte gehien artean izandako harrera onak lanerako esparru interesgarria sortu dute «hezkuntza eta kirolaren» alorrean. Geroz eta eskakizun tekniko eta pedagogiko handiagoak dituen esparrua izanik, ezinbestekoak dira prestakuntza sendoa duten teknikariak eta hezitzaileak.

Haatik, hain premiazko duen profesionalizazioari aspalditik traba handiak jartzen dizkion giroan garatzen da eskola-kirola:

- **Ordutegi murrizta.** Astean 2, 3 edo 4 arratsalde, eguneko 2-4 orduz eta horrez gain, astebururo kirol-txapelketa bat, urtean 8 edo 9 hilabetez. Horiek, guztira, gehienez ere, 560 lan-ordu dira urtean, hau da, batezbesteko hitzarmen baten lan-ordu kopuruaren herena gutxi gorabehera.
- **Intrusismoa.** Batzuen lana beste batzuen zaletasuna izatea gauza ezaguna eta ohikoa da bai kirolean eta baita beste adierazpen kultural batzuetan ere. Ezaugarri horrek badu hainbat alderdi eta ñabardura. Bitxia bada ere, horiek guztiak edo ia guztiak ongi ikusiak daude eta aise onartzen ditugu: bere lanaldia bukatutakoan futbol-taldea entrenatzen duen gurasoa; bere entrenamendua baino lehen, kimuen taldea entrenatzen duen neska gaztea; edo, ikastetxeko hezkuntza-proiektuarekin hartutako konpromisoa dela-eta, neska-mutil talde batekin atletismoa lantzen amaitu duen Natur Zientzien irakaslea.
- **Aitorpen eskasa.** Eskola-kirolak garrantzi handia du itxuraz eta teoriarik, baina ez hain handia, ordea, benetan eta praktikan. Gaur egun oraindik ere aise ikusten dugu haur bat kirolik egin gabe zigortu dutela azken ebaluazioan hiru ikasgai gainditu ez dituelako. Halaber, ohikoa da norbaitek DBHn «kirola egiteari utzi behar izan diola» entzutea astirik ez duelako. Edo are okerrago: «Esana diot ez dela kirolerako jaioa, hobe duela denbora beste zerbaitean eman, kirolean ez dela inora helduko».

Kirola derrigortzeko modutzat, denbora-pasa erabilgarritzat edo goi-mailako kirolera iristeko bitartekotzat jotzen duten adierazpenak ez dira eskola-kirola oharkabea edo ez hain oharkabea gutxien duten hiru

adierazpen bakarrak, baina bai, ordea, ohikoenak, eta eskola-kirolak duen aitorpen eskasaren erakusgarri izaten jarraitzen dute.

Ñabardurak ñabardura, kirol federatuaren edo, hein handiagoan edo txikiagoan, goi-mailakotzat jotzen den kirolaren egoera ez da oso bestelakoa. Hemen ere ordu-tartea oso murrizta da, baina intrusismoa ez da eskola-kirolekoa bezain nabarmena eta aitorpena ere handiagoa da seguruenik. Hala ere, finantzaketa-iturriak oso urriak izan ohi dira eta ondorioz, teknikariak profesionalizatzeko trabak eskola-kirolaren baitakoak bezain handiak dira.

Profesionalizazio ezak soldata bermatzeko lan-jarduera ordainduak bilatzeko premia dakar, eta kirol-entrenamendua aisiarako uztea. Kirol-teknikaria kirolaria bezain zalea izaten da maiz, prestakuntza-maila edozein dela ere.

Ezinbesteko profesionalizazioan, gutxienez ere bi ezaugarri erabakigarri dago:

- Geroz eta nabarmenagoa da kirola beharrezkoa dela guztiontzat eta adin guztietan. Funtsean osasunarekin lotuta dagoen kontu horri esker, kirol-jarduera fisikoa aisiaren eremutik derrigorrezkotasunaren esparrura igarotzen ari da, eta ondorioz, eskakizun teknikoen egiaztatutako maila eraginkorretara.
- Profesionalizatu beharreko langileen ezaugarri teknikoak egunetik egunera handiagoak dira eta hain exijentzia handiko esparruetan, pedagogiaren edo ariketa-fisiologiaren esparruan adibidez, lan hori egiteko ez da nahikoa «borondatea» edo «asmo ona».

Testuinguru honetan kokatu behar dugu kirolaren profesionalizazioari buruzko hausnarketarako eta eztabaidarako jardunaldia.

## 2. JARDUNALDIKO MINTZALDIAK / HAUSNARKETAK

### IREKIERA

Saioaren edo ideia-foroaren inaugurazioak iragartzen zuenez, mamia, interesa eta gaurkotasuna duen gaia da. Izan ere, alde batetik, aretoan ehun pertsona inguru bildu ziren. Bestalde, irekierako mahaikideek jardunaldiaren protokolozko ongietorria eta justifikazioa alde batera utzi eta argi eta garbi hausnarketa egitera bultzatzen zuten gaietan murgildu ziren. Hauek izan ziren mahaikideak: Isabel Ariceta andrea, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Graduako arduraduna, Fernando Garrigós jauna, Euskal Herriko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Lizentziatuen Elkargo Ofizialeko presidentea, eta Jon Redondo jauna, Eusko Jaurlaritzako Gazteriako eta Kiroletako zuzendaria.

Ekitaldiaren gidari izandako Ariceta andrearen mintzaldiaren ostean, Garrigós jaunak geroago egingo zuen mintzaldia oinarritzen zuten bi ardatzak azaldu zituen:

- Gorputz Hezkuntza irakasgai arautu gisa aldarrikatzea eta
- kirolaren profesionalizazioa.

Beharrezkoa iruditzen zait idatziz adieraztea, Fernando Garrigósen lehen mintzalditik hasi eta baita goizean aretoan sortu ziren mintzaldietako askotan ere, argi geratu zela kirola Europako Kirol Gutunak definitzen duen moduan ulertzen zela: **«Parte hartze antolatua edo antolagabearen bidez, egoera fisiko edo psikikoa azalarazteko edo hobetzeko, gizarte-harremanak garatzeko edo, maila guztietan, lehiaketetan emaitza onak lortzeko helburua duen jarduera fisiko oro»**. Beraz, kirol kontzeptua mugarik gabe eta hizkera arruntean erabili ohi den zentzu zabalean erabili zen.

Irekiera-ekitaldiko mintzaldi-zikloa nahikoa adibidetan oinarritu zuen iritzi batekin itxi zuen Jon Redondok: kirolak garrantzi politikoa galdu du erakundeetan.

Horrez gain, ekintza estrategikorako bide bihur litezkeen kirolaren profesionalizazioari buruzko lau gogoeta-ildo ere eman zituen:

- Krisialdietan aisiak ez du lehentasunik. Ondorioz, aisiaren adierazpenak, kirola esaterako, bigarren mailan geratzen dira.
- Migrazio-mugimenduak gizarte-nolakotasunaren zati direnean, kirol-jarduera fisikoa gizarteratzeko bidea izan daiteke.



- Kirolaren eta osasunaren arteko erlazioa gero eta nabarmenagoa da. Bi kontzeptu horien arteko eragin-trukea ez da orain dela 20 urtekoa bezalakoa. Lehen Gorputz Hezkuntza eta Kirol Fakultateek eta bertako profesionalek aldarrikatzen zuten zerbait baino ez zen, baina gaur egun osasun arlora ere zabaldu da.
- Kirolak, kultura-adierazpen den heinean, pertsona eta gizarteentzako nortasunean sakontzeko aukera ematen du. Elementu hori indar handikoa da balioen enkulturazioan, hau da, nor bere kultura eta balioak belaunaldiz belaunaldi transmititzeko orduan.

## **GAITZAT «GIZA BALIABIDEEN EGOERA KIROLEAN» DUEN AZTERLANAREN AZALPENA**

Giza baliabideek kirolaren hainbat esparrutan bizi duten egoera aztertzen duen azterlanaren berri eman zuen **Zuriñe Zuazok**. Adimen izeneko enpresa arduratu da Eusko Jaurlaritzarentzat oraindik amaigabe dagoen azterlana egiteaz.

Azterlanak kirol-klubei, kirol arloko eskumenak dituen administrazioari, sektoreko enpresei eta ikastetxeei online eginiko galdetegia hartzen du abiapuntu. Galdetegiaren parte-hartzaileek langileen inguruko hiru alderdiri buruzko galderak erantzun behar izan zituzten: funtzioak, titulazioa eta lan-baldintzak.

Hona hemen emaitzen aurrerapen bat:

- Kirol arloan lan egiten dutenen % 40,9k harreman profesionala du.
- % 59,1 boluntario aritzen da.

Datuak xeheago banakatzean, profesionalizatutako % 40,9ra heltzeko, nabarmentzekoa da % 25ek baino ez duela kontratu mugagabea, % 8,5 aldi baterako kontratuak direla eta % 7,4 langile autonomoak direla.

Gainerako ia % 60aren artean, % 26,9k boluntario-hitzarmena sinatu du, eta geratzen den % 32k ez du ezertxo ere.

Hala, ondorengo lauki honetan egoera argiago ikus daiteke:

Profesionalizatutakoak % 40,9	Kontratu mugagabea	% 25
	Aldi baterako kontratua	% 8,5
	Autonomoa	% 7,4
Boluntarioak % 59	Boluntario-hitzarmena	% 26,9
	Ezer ez	% 32,1

Aurreko laukia argitzeko, hiru alderdi garrantzitsu nabarmendu behar ditugu:

- Kirol arloko langileen % 74 ez da iristen asteen 10 orduko lanaldira
- Langileen % 38k ez du inolako ordainsaririk jasotzen eta % 28,5ek hilean 250 € baino gutxiago jasotzen du
- Langileen % 3,4k hilean 1.500 eurotik gorako ordainsaria jasotzen du

Interesgarria da nabarmentzea, galdetegian egiaztatu ahal izan dugunez, kirol arloko langile gehienek eskarmentu handia dutela; izan ere, % 61ek 5 urtetik gorako eskarmentua du bere lanpostuan.

Hauexek dira galdetegiak aztertutako lan-kategoriak:

- Zuzendaritza teknikoak, monitoreak eta entrenatzaileak.

Adimen enpresaren azterlanaren emaitzen aurrerapenak ondorengo ondorio hauek eskaintzen dizkigu:

- Boluntariorik indar handia du. Hona hemen ezaugarriak:
  - Kasuen erdian baino gehiagotan, ez dago boluntario-hitzarmenik.
  - Ez dute ordainsaririk jasotzen (% 60k baino gehiagok).
  - 10 ordu baino gutxiago egiten dute lan (% 80k ia).
- Kirol arloan lan egiten duten pertsonen buruz azaldutakoa ondorengo bost orokortze hauekin laburbil daiteke:
  - Ez dute jasotzen lan horretatik bizitzeko moduko ordainsaririk.
  - Gehienek ez dute lan-kontraturik.
  - Langile gehienek arduraldia astean 10 orduetik beherakoa da.
  - Arratsaldeko ordutegia izan ohi dute.
- Entrenatzaileek monitoreek baino balorazio ekonomiko eskasagoa dute eta azken horiek zuzendari teknikoek baino eskasagoa. Hortaz, entrenatzaileen taldean dago boluntariorik handiena.
- Zuzendari teknikoaren lanpostua boluntarioek betetzen dute nagusiki (langileen % 54 baino zertxobait gehiago). Hala ere, profesionalizatutako kasuetan, zuzendari teknikoaren taldeak ordainsari handiagoa jasotzen du, kontratu mugagabe gehiago ditu, arduraldi luzeagoa du eta eskarmentu handiagoa ere bai.

## 1. HITZALDIA: «LANBIDEEN PROFESIONALIZAZIOA. GIZARTE-HEZITZAILEEN KASUA»

Gaztela-Mantxako Unibertsitateko **Roberto Moreno** irakasleak Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Lizentzia baino askoz berriagoa den Gizarte Hezkuntzaren ibilbide profesionala azaldu zuen.

Gizarte Hezkuntza 80ko hamarkadan sortu zen gizartean nabarmena zen orekarik ezaren ondorioz. Izan ere, BPGa asko hazi zen baina herritarren artean desberdintasun handia zegoen.

Hainbat desberdintasun arintzeko gizarte-premia zegoela-eta, boluntarioen eta gobernuz kanpoko erakundeen eskutik, hainbat laguntza-esparru sortu ziren gizartearen aurrerabide desorekatuari aurre egiteko asmoz. Hala, helduen hezkuntzako ikasgelak, adin txikikoentzako zentroak eta beste zenbait lan-esparru sortu eta finkatu ziren gure inguruan.

Gizarte-zerbitzuak sendotu ahala, pixkanaka beharrezkoagoa bihurtzen da boluntarioek prestakuntza jasotzea, hau da, profesionalizatzea.

Beraz, zerbitzu jakin bat eman ahal izateko gizarte-premiak profesionalizatu zuen lan-esparru hori. Aitzitik, lan-esparrua legez araututa ez egoteak profesionalizazioaren kontra jokatzeko zuen.

Edonola ere, profesionalizazio-prozesua lanbidearen erregulazioarekin amaitzen da, baina hori baino lehen eta «gizarte-premia» gisa identifikatutako lehen urratsaren ostean, beste urrats batzuk eman beharko dira.

Premiaren ondotik, jarduneko pertsonak gaituko dituen prestakuntza-prozesua dator. Araututako prestakuntza-prozesuaren lehen fasea 1991n iritsi zitzaieen gizarte-hezitzaileei, unibertsitate-diploma sortu zenean.

Profesionalizazioaren hirugarren urratsa asoziazionismoa da, eta horren amaieran Lanbide Elkargoa eratzea gerta liteke, edo gertatu beharko litzateke.

Beraz, ondorengo laukian azaltzen den bezala eskematiza liteke Gizarte Hezkuntzak jarraitutako profesionalizazio-prozesua:

1	Gizarte premia
2	Prestakuntza arautua
3	Lanbidearen asoziazionismoa (Elkargo ofiziala)
4	Lanbidearen erregulazioa

Gizarte Hezkuntzan, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren kasuan bezalaxe, profesionalizazioa prozesu bizia eta gogorra da, une edo egoera jakin baten edo

historiko baten arabera, mesedegarriak edo kaltegarriak izan daitezkeen hainbat eragile edo faktore identifikatu behar izaten dituelako profesional-taldeak.

Eragileak, Roberto Morenok azaldutakoaren arabera, honako hauek dira:

- Profesionalak eurak
- Estatua eta administrazioak
- Unibertsitateak
- Merkatua
- Erabiltzaileak/bezeroak
- Beste lanbide batzuk

Eragile bat profesionalizatorako mesedegarri edo, aitzitik, kaltegarri izan daitekeela-eta, elkargoko asoziazionismoa eta lanbidearen erregulazioa oso komenigarriak dira.

Aise uler dezakegu administrazioaren aparatuek, unibertsitateek, bezero direnek eta izan daitezkeenek eta, batik bat, muga lausoko jardute-eremuak dituzten lanbideek nola joka dezaketen Gizarte Hezkuntzaren mesederako edo kalterako. Haatik, eta hau bada paradoxikoa, hizlariak dioenez, eragile profesionalizatzaile nagusiak profesionalak eurak dira eta ez, ordea, merkatua edo bezeroak.

Izan ere, merkatuak, hau da bezeroek, sortuko dute zerbitzu profesionalizatu baten «premia».

Lan-esparruen mugatzeak kalte zuzena eragiten die hein handiagoan ala txikiagoan kontsolidatutako zenbait unibertsitate-ikasketari. Zentzu horretan, unibertsitateek profesionalizazioaren kaltetan joka dezakete, Gizarte Hezkuntzaren lan-esparruan beste ikasketa batzuk sartzeko helburua izan dezaketelako. Kirol munduan gertatzen da halakorik ere.

Unibertsitatea profesionalizatzailea izan dadin, lagungarria izango da lan-esparru baterako berariazko ikasketak sortzea eta, horrez gain, ikasketen curriculumean interes profesionalizatzaile nabarmena duten irakasgaiak sartzea, hala nola:

- Gizarte Hezkuntzaren profesionalizazioa, edo
- Konpetentzien araberako prestakuntza lanbidearen jardunean

Azken buruan, hizlariak Gizarte Hezkuntzaren eremutik boluntariora errotik ateratzea proposatu zuen, borondatez lan egiteko aldia bukatu dela esanez. Orain lan-esparru profesionala da, profesionalentzat.

Boluntarioraren aurka borrokatzeko, kasuak salatu egin behar dira, eta, jakina, salaketan arrakasta profesionalizazio-prozesuaren azken urratsa den «lanbidearen erregulazioaren» araberakoa izango da.

## **2. HITZALDIA: «JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN LANBIDE-EGOERA ETA -JARDUNA ETA LANBIDEAREN PROFESIONALIZAZIOA»**

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Fakultateko -Inef (U.P.M.)- Antonio Campos irakaslea mintzatu zen jarduera fisiko eta kirol-jardueren lan-esparruaren egungo egoerari eta profesionalei buruz.

Azken berrogei urteotan, «jarduera fisikoa eta kirol-jardueraren» ezagutza-esparruko lanbideak eta irtenbide profesionalak zabaldu egin dira pixkanaka-pixkanaka, eta, hala, ezagutza-esparru horretako ikasketa arautuak burutu dituztenek aukera handiagoak dituzte.

Haatik, geroz eta lan-esparru zabalagoa duten kirol-arloko lanbideak, sarreran aipatu bezala, hiru arriskuren eraginpean daude: lan-eskakizuna ordu-tarte estuetan pilatzen da, intrusismo oportunistak bizi du eta gizarte-aitorpen eskasa du.

Campos irakasleak horietako bi aztertu zituen: aukera profesional zabalaren gaia eta horiek arriskuan jartzen dituzten mehatxuen gaia.

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako tituludunaren lan-aukeren katalogoak lan-espektrora zabala irekitzen du. Lan-aukera horien funtzioak pedagogiari, errehabilitazioari, kudeaketari edo aholkularitzari dagozkio funtsean.

Hona hemen hizlariak adierazitako jardueren zerrenda:

- Jarduera fisikoa eta kirola irakastea
- Gorputz hezkuntza eta kirola irakastea
- Ikastetxeetan eskolaz kanpoko kirol-jarduera fisikoak irakastea (ikastetxeetan eskolaz kanpoko ordutegian egin daitezkeen antolatzen dira)
- Ikastaroetan kirol-jarduera fisikoari buruzko edukiak irakastea
- Lehiatzeko helburuarekin, banakako edo taldeko kirolak entrenatzea
- Pertsonak edo taldeak fisikoki prestatzea (prestatzea fisikoa)
- Ariketa edo jarduera fisikoaren eta kirolaren bitartez fisikoki birradaptatzea edo berrezitzea
- Taldekako egokitzapen fisikoa lantzea (forma fisikoa zaintzea eta mantentzea taldean)
- Animazioko-aisialdiko kirola lantzea
- Kirol-instalazioetan eta erakundeetan jarduera fisikoa eta kirola zuzentzea, antolatzea eta koordinatzea
- Jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak ikuskatzea
- Jarduera fisikoen eta kirol-jardueren inguruan aholkularitza eskaintzea, ikerketa egitea eta egiaztatzea

Irakaskuntzak, edozein mailatako errendimenduak, osasunak, guztiontzako kirolak, kirol-kudeaketak edo aholkularitzak ongi prestatutako profesionalak

behar ditu. Dena dela, egoera ez da hain argia, lan-eremuaren espektro zabalak adierazten duenez.

Lau ikuspuntutatik begiratzen dio Camposek egoerari:

1. Lanbidearen egoera
2. Sektoreko prestakuntzaren ezaugarriak
3. Lanbidearen jarduna eta giza baliabideen antolamendua jarduera fisikoetan eta kirol-jardueretan
4. Etorkizunerako irtenbideak

### 1. Lanbidearen egoera

Egoeraren ezaugarriak Adimen enpresaren azterlanetik ondorioztatutakoen eta Zuriñe Zuazok aurkeztutakoen antzekoak dira. Honatx:

- Lanaren prekarietatea. Ordutegi murrizak eta ordu-tarte berean pilatuta. Aldi baterako kontratuak, urteko sasoiarekin, oporraldiekin, udarekin edota beste gorabehera batzuekin hertsiki lotzen direnak.
- Ekonomia ezkutuarien baitako lana. Kontraturik gabe, gizarte-bermerik gabe, diru beltzean ordainduta. Ikasleen eskaintzaren eta intrusismoaren ondorio. Hau da, eskaria konformaeraza da eta gazteen eskaintza, aldiz, prestakuntza gutxikoa.
- Askotan lan-araudia ez da betetzen. Aurreko puntuan esandako arau-hausteaz gain, sektoreari dagozkion zenbait hitzarmen kolektibo ere ez dira askotan betetzen.
- Lan-merkatura sartzeko adiskideen kontaktuak behar izaten dira. Eskatutako eginkizunaren aitortpen eskasaren ondorioz, oposaketan edo hautaketa-prozesuen ordean, ohikoagoak dira gomendioak eta adiskidekeria.
- Azpikontratazioa. Egungo ekoizpen-sistematan outsourcing delakoa izateko arrazoi garrantzitsu izatera iritsi bada ere, kirolean paradoxa bat gertatzen da: azpikontratazioak ekoizpenaren xedeari berari eragiten dio. Lan-eskariaren behin-behinekotasunaren eta aldakortasunaren ondorio.
- Aurrekontu publikoen mendekotasun handiegia du. Baita jarduera pribatuetan ere, adibidez, eskola-kirolean edo kirol federatuan. Askotan gertatzen da, orobat, guraso-elkarteek edo izaera pribatuko beste erakunde batzuek antolatutako kirol-eskolak edo guztiontzako kirola administrazioaren diru-laguntzei oso lotuta egotea.

## 2. Sektoreko prestakuntzaren ezaugarriak

Bolonia planak eta LOMCE «hezkuntzaren kalitatea hobetzeko» legeak edo Wert legea izenaz ezagunagoa denak unibertsitateko panoraman sortutako nahastea alde batera utzita, gaur egun, ondorengo hauek dira kirol-arloan araututako tituluak:

- Unibertsitateko irakaskuntzak
  - Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako lizentzia edo gradua.
  - Gorputz Hezkuntzako irakasle espezialista edo Lehen Hezkuntzako gradua.
- Lanbide Heziketako heziketa-zikloak
  - Gorputz- eta Kirol-ekintzen Sustapeneko goi teknikaria
  - Natura-inguruneko Gorputz- eta Kirol- ekintzen Gidaritzako teknikaria
- Araubide Bereziko Irakaskuntzak
  - Goi-mailako Kirol Teknikaria (dagokion kirolean)
  - Kirol Teknikaria (dagokion kirolean)

Hala ere, lan-esparruan langileek prestakuntza eskasa izaten dute eta intrusismo handia dago. Gutxienez lau arrazoi dago atzean:

- a) Askok uste du prestakuntza pribatuek jardun profesionalerako gaitzen dutela
- b) Araudi aplikagarria eskasa da, eta, gainera, arau-haustek sistematiakoak dira
- c) Enpresa-sektorearen exigentzia eskasa: «denok gara edozer egiteko gai»
- d) Etengabeko prestakuntza edo prestakuntza iraunkor eskasa

## 3. Lanbidearen jarduna eta giza baliabideen antolamendua jarduera fisikoetan eta kirol-jardueretan

Alde batetik profesionalek, lanpostuaren funtzioak betetzeari dagokionez, eta bestetik, kontratatzaileak, langileen antolaketari dagokionez, gutxieneko baldintza batzuk bete behar dituzte. Hala ere, zoritxarrez, oso sarritan ez dira betetzen.

Profesionalen gutxieneko baldintzak:

- Deontologia. Lanbidearen mesederako, kode deontologiko bat proposatzea komeni da agian. Profesionaltasun ezak etika deontologikorik eza esan nahi du, eta hori profesionalizazioaren aurka jokatzen duen faktore garrantzitsua da.



- Lanpostua ezagutzea. Lanpostua zer premiak sortu zuen ezagutzea. Eskariari behar bezala aurre egiteko modu bakarra eta ezinbestekoa bere izateko arrazoa sakonetik ezagutzea da.
- Balio erantsia. Bestela esateko: Zer gauza on ekar diezaioke nire prestakuntzak lanpostuari? Nire ezaugarriak kontuan hartuta, zer balio erantsi diezaioket lanpostuari?

Kontratatzaileen gutxieneko baldintzak:

- Lanpostuaren deskribapena. Beharrak. «Denok gara edozer egiteko gai» ideia oso zabaldua dago eskola-kirolean physical fitnessaren lan-eremuan. Kontratatzailearen lana errazten du horrek, baina bezeroari kalte handiak sortzen dizkio eta sektorearen profesionalizazioaren aurka jokatzen du nabarmen.
- Hautaketa. Gomendatutako langilea ez da hautatutako langilea bezain egokia. Gomendioa mesedegarria izan daiteke, baina baita kaltegarria ere. Enpresaren irizpideei eta lanpostuaren zein eskariaren premiei erantzuten dien hautaketa egitea askoz eraginkorragoa da; ez da ia inoiz, ordea, sektore honetan hala gertatzen.
- Azterketa. Enpresak lanpostu ororen jardun profesionalaren azterketa egin beharko luke. Eta batik bat jarduera fisikoen eta kirol-jardueren sektorean; izan ere, hautemandako kalitateak (erabiltzaileak edo bezeroak hautemandakoak) neurriz kanpoko balioak hartzen ditu. Enpresaren azterketarik ezean, haur- edo kadete-kategoriako jokalaria edo aerobic-aretoako erabiltzaileak ebaluatuko du jardun profesionala. Eta beraz, ebaluazioak ez du irizpide profesionalik jarraituko, pertzepzio hutsean oinarrituko baita.

#### 4. Etorkizunerako irtenbideak:

Azaldutako egoerak etsigarria dirudien arren, ez dugu etsipenerako arrazoirik.

1998an, bizilekua Bartzelonan duen Klaus Heinemann soziologo alemaniarrek honako hau esan zuen:

- Ordaindu gabeko borondatezko lana alde batera utzi eta ordaindutako lana ezartzen ari da.
- Noizean behingo lan libre eta osagarria baztertu eta, horren ordez, jarduera nagusi bilakatzen ari den lan jarraitua ezartzen ari da.

Eta 2010ean Campos Izquierdok erantsi zuen:

- Prestakuntza akademiko aproposik gabeko langileen lana baztertu eta araututako prestakuntza akademikoa duten langileen lana geroz eta ohikoagoa da kirolaren esparruan.

Egoera txarra bada ere, kirolaren lan-esparrua hobera doa pixkanaka-pixkanaka. Halako egoeran, profesionalizazioa eta enplegagarritasuna ondorengo faktore hauen araberakoak izango dira:

- Prestakuntza
- Lan-egituraketari dagokionez, besteak beste honako gaien inguruko irudimena eta sinergiak:
  - Mugikortasuna
  - Behin-behinekotasuna
  - Egonkortasuna/egonkortasun eza
  - Lanbidearen erregulazioa eta araudiaren betetze-maila. Intrusismoari aurre egiteko.
  - Zerga-ikuskapena. Ezkutuko ekonomiaren baitako lanari aurre egiteko.
  - Boluntarioen eta profesionalen jardute-eremua legez zehaztea
- Jakin badakigu titulazioa, aukerak ondo baliatzea eta sinergiak eta araudia faktore garrantzitsuak eta beharrezkoak direla. Alabaina, profesionalizatorako ezinbesteko faktorea nork bere lanpostuari eskaintzen dion balio erantsia da.

Kafea hartzeko eta eztabaidatzeko atsedenaldiaren ostean, jardunaldiaren bigarren zatiari eman zaio hasiera. Hiru mahai-inguru osatu dira ideiak eta esperientziak azaltzeko. Heldutako gaia: **ZER EGIN DEZAKEGU GUZION ARTEAN KIROLA PROFESIONALIZATZEKO?**

## 1. MAHAI-INGURUA. PERTSONAK

Lehen mahai-ingurua **Ibón Muñozek** eta **Alex Rodríguezek** osatzen zuten. Biek hasieran borondatezkoa zen jarduera bat profesionalizatu dute, oso bestelakoak diren bi jarduera, baina biak ere kirolaren arlokoak.

Haiekin batera, aditu gisa, **Fernando Garrigós** zegoen, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako lizentziadunen Euskal Herriko elkargo ofizialeko presidentea eta Harrobia lanbide heziketako zentroko zuzendaria.

Fernando Asenjo Deustuko Unibertsitatearen ordezkariak egin zituen aurkezle eta moderatzaile lanak.

### 1. mintzaldia. Ibon Muñoz:

Bidasoa Atletiko Taldea (BAT) klubeko zuzendari teknikoa da 2004az geroztik eta klubeko gerentea 2012az geroztik. Klubean lanpostua profesionalizatu ahal izan zuen arte zer ibilbide jarraitu zuen azaldu zigun. Hasieran borondatez egiten zuen lan eta atletismorako zaletasuna kirol-munduarekin inolako loturarik ez zuen beste lan batekin bateratzen zuen.

Ibon langile autonomoa da. BAT klubean egiten zituen konpetiziozko jarduerak zabaldu eta, pixkanaka, atletismoarekin lotutako ekitaldiak antolatzeari, gazteak kirol horretan trebatzeari edo helduak fisikoki eta atletikoki prestatzeari ekin zion.

Ibon Muñoz atleta gisa hasi zen klubean eta klubeko geroko lanari esker, «beste» lana utzi eta bete-betean lan-orduak klubari eskaintzeko aukera izan zuen. Klubeko kuotetatik eta laguntza pribatutik zetozen diru-sarreraren kopurua ikusita, egokiena bere funtzioa profesionalizatzea zen, eta sartzen zen diruak horretarako aukera ematen zuen.

Muñozek adierazi zuenez, pixkanaka pixkanaka trebatu zen klubeko lan-jardunean, unean sortzen ziren premien arabera.

Ibon Muñozen eskarmentu profesionalizatzaileak nabarmentzeko moduko bi alderdi ditu: lehenengoa norberak funtzio zehatz bati eskaini ahal dion "balio erantsiarekin" oso lotuta dago. Muñozek, lehen borondatezko lanarekin egiten zuen lanpostu batetik, lanpostu berria sortu zuen, bere lanaren ekarpenarekin finantzatu ahal izan zuena.

Bigarrena prestakuntzarekin dago lotuta, gaur egun, lanpostu bat lortu ostean, espezializaziorako eta prestakuntza iraunkorrerako dagoen joerarekin alegia.

## **2. mintzaldia. Alex Rodríguez:**

Alex xake-irakaslea da Sestaon eta berak bizitakoaren berri eman zigun. Langabezian geratu ostean, xakerako zuen zaletasuna lanbide bihurtzea erabaki zuen. Gaur egun, langile autonomo gisa lan egiten du inguruko hainbat ikastetxetan.

Rodríguezek egindako azalpenetik, sektoreko egoera orokorraren erakusgarri izan daitezkeen hiru alderdi nabarmendu ditzakegu:

- Boluntarioen konkurrentzia, desleiala edo ez, sektorean.
- Jarduera bakarrarekin soldata duina lortzeko zailtasuna.
- Eskolako oporraldien ondoriozko behin-behinekotasunaren arazoak.

Aipatzen dituen argumentuek zentzua ematen diote halako jardunaldiei. Egian esan, Alex Rodríguezek kirolaren profesionalizazioa zeinen zaila den adierazten du. Izan ere, lan-esparrua ez dago mugatuta, urtarokotasun handiko esparrua da eta balioaniztun izatea ezinbestekoa bilakatzen da.

Balioaniztun izateko beharrari dagokionez, berriro esan behar dugu lehen, Antonio Camposen hitzaldian, esandakoa: «denok gara edozer egiteko gai» ideiak enplegarritasunari mesede egiten dio, baina espezializaioari, aldiz, kalte, eta ondorioz, bezeroarentzat ere kaltegarri izan daiteke.

Bestela esanda, balioaniztasuna antzeko esparruekin lotuta egon behar da, alderdi bertsuekin edo eskakizun bereko lanekin; ostera, profesionalizazioaren proiektu pertsonalaren kontra jokatu luke.

## **3. mintzaldia. Fernando Garrigós:**

Kirol-arloan profesionalak trebatzen dituen Lanbide heziketako Harrobia Ikastolako zuzendariak hiru puntu erabakigarritan oinarritu zuen hitzaldia:

- Norberaren prestakuntza
- Nork bere lana aintzat hartzeko beharra. Profesionalizatzea
- Prestakuntza dualaren, alternantziatzeko prestakuntzaren eta prestakuntza iraunkorraren alde egitea

Lehendabiziko puntu erabakigarria norberaren prestakuntzari dagokiona da eta, Garrigósek bi alderdi dituen puntutzat aurkezten du:

Alde batetik, prestakuntzak enplegarritasuna maximizatzeko balio du. Hala, prestakuntza erabakigarria da langile bat profesionala edo boluntarioa edo boluntarista den erabakitzeke.

Bestetik, zentzuz inbertitu behar da gure ibilbide profesionalizatzailea zehaztuko duen prestakuntzan. Prestakuntzan inbertitzea behar iraunkortzat jotzen da eta etorkizunean ezin alboratu izango dugun faktorea da, premien aldakortasunak

etengabe azpisektore-aukera berriak irekitzen dituelako. Horixe izango da, seguruenik, orainaren eta etorkizun hurbilaren ezaugarrietako bat, bai geure sektorean eta baita gizartean ere.

Sektoreko profesionalizazioan laguntzeko beharrari dagokionez, dela gizabanako gisa, dela gizarte gisa, Fernandok zenbait alderditan arreta berezia jarri beharko genukeela nabarmendu zuen. Besteak beste:

- Norberaren curriculuma sortzea eta aberastea
- Marka pertsonalean eta norberaren irudia saltzean balio erantsia sortzea.
- Ekintzailtza.

Sektorearen egungo egoeran jarri zuen arreta eta Adimen enpresaren azterlanak edo Antonio Camposek landutako zenbait gairi heldu zion berriro: enplegu-aniztasuna eta jarduera-aniztasuna.

Diru-sarrera eskasen aurrean zer egin proposatu zuen: menpeko autonomia; hobaridun kuotak; fakturak egun gutxi batzuetan pilatzea; beste baten bitartez fakturatzea; alta Ogasunean bakarrik egitea; beste jarduera bat ere izatea...

Gogor egin zuen luze-zabal hedatuta dagoen ezkutuko ekonomiaren aurka; izan ere, ezkutuko ekonomia oso errotuta dago errendimenduzko kirolaren eta eskola-kirolaren alorrean, eta horrek intrusismoa eta sektorearen profesionalizazio eza bultzatzen du.

Profesionalizazioari begira jardunbide sozial eta pertsonala izatea beharrezkoa dela jakinik, boluntariotzaren eremuko teknikarien mesederako, oso argi zehaztu beharko da lanbidearen jarduera-eremua zein den. Monitorea, entrenatzailea eta kirol-zuzendaria, horiek guztiak profesionalak dira, eta, are gehiago, legez ordaindutako profesionalak: «Giza baliabideetan xahutzen den euro oro nominan edo fakturretan azalduko da».

Garrigósek bi egoera ekonomikoren arteko konparazioa egin zuen hainbat hitzarmen kolektibo eta egoera kontuan hartuta: batetik, kirol-zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa batean, gimnasio batean edo beste kirol-zerbitzuren batean hilean 16 ordurako lanpostu bat betetzeko kontratatutako teknikariarena; bestetik, klub batean boluntario ari denarena.

Lan esparruak	Urteko soldata gordina
Bizkaiko kirol-lokalen eta kirol-zelaiaren sektoreko hitzarmen kolektiboa	18.973,60 €
Aisialdi hezitzailearen eta sustapen soziokulturalaren sektoreko hitzarmen kolektiboa (Estatu mailakoa)	13.054,61 €
Kirol-instalazioen eta gimnasioen sektoreko III. hitzarmen kolektiboa (Estatu mailakoa)	12.384,77 €
Lanbide arteko gutxieneko soldata	9.080,40 €
Boluntarioa	—

Ongi xehatutako laukia aurrean zuela, ohartarazi zuen gimnasioen, enpresen eta klubaren sektorearen egoera sarritan oso arriskutsua dela, bertan profesional-kopurua murriztu egiten baita eta profesionalizatuta egon beharko liratekeen funtzioak dituzten boluntarioena, aldiz, handitu.

Ongi trebatutako irakasleak dituen kalitatezko kirolaren premiari ere gizartearen garrantzi gutxi ematen zaiola ohartarazi zuen. Kirolean ez gara existitzen, oharkabeak igarotzen gara, ikusezinak gara.

Fernandok esan nahi zuena da gizartearen zati handi batek kirola ezinbestekoa ez den gauzatzen duela, osagarria baino ez den gauzatzen, eta beraz, horientzat guztientzat prestakuntza bigarren mailako kontua dela.

Sektorea profesionalizatzeko norberaren eta gizartearen prestakuntza ezinbesteko faktoreak direla nabarmendu zuen berriro. Eta honako hau esanez amaitzen du: «Bestelako lan-arlo batean kontratua duen inor baldin badago kirol-arloan boluntario-lana egin nahi duena, aurrera. Baina horren truke ordainik jaso gabe».

Azalpenaren hirugarren puntu erabakigarriari helduz, Fernando Garrigósek kirol-arloko sektore profesionalari honako hauen aldeko apustu garbia egin dezan esan zien:

- Alternantziako prestakuntza duala eta
- Hasierako prestakuntza eta bizitza osoan zeharreko prestakuntza.

Mintzaldiak amaitutakoan, Fernando Asenjok galderak eta iradokizunak egiteko tarte ireki zuen aretoan, eta horretatik, izaera bertsuko bi iritzi azalarazi ziren: «Ezin esan daiteke kirol-arloan jarduten duen boluntarioa intruso denik, eskatutako titulua izanik, doan entrenatzen duelako».

Garrigós bat dator adierazpen horrekin, baina uste du egoera horrek ez duela askoz orokortuago dagoen beste egoera estali behar, hau da, titulurik eta prestakuntzarik gabeko entrenatzaile boluntarioena edo, prestakuntza izan ala ez, dirua beltzean jasotzen dutenena.

## 2. MAHAI-INGURUA. KIROL ERAKUNDEAK

Alde batetik, **Mirian Puerta** eta **Judith Torralbak**, Getxo Igeriketa Waterpolo klubaren eta Euskal Gimnastika Federazioaren izenean hurrenez hurren, eta bestetik, **Javier Toña** eta **Ander Marquínezek**, Olabide Ikastolaren izenean, euren erakundeek azken urteetan bizitako prozesu profesionalizatzailearen berri eman zuten bigarren mahai-inguru honetan.

**Borja Callejok** moderatutako mahai-inguruan **Antonio Campos** ere izan zuten lagun.

Bost parte-hartzaileek (Olabideren izenean bi) profesionalizazioaren lau eredu aurkeztu zituzten: autofinantzatutako kirol-klub bat, federazioa bat, eskola-kiroleko zentro bat eta guztiontzako kiroleko auzo erakunde bat.

### 1. mintzaldia. Mirian Puerta. Getxo Igeriketa Waterpolo.

Kirol-zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa bihurtu zen arte, Getxo Igeriketa Waterpolo klubak bizitako prozesua xehatu zuen Puertak. Bilakaera horri esker, klubak sorospen-jarduerak, igeriketakoak edo beste kirol-jarduera batzuk garatzeko lehiaketetan parte hartu ahal izan du Getxoko udalerraren baitan.

Bilakaeraren arrazoiak hiru dira:

- Klubeko zenbait lanpostu profesionalizatzea
- Klubeko autofinantzaketa hobetzea
- Ematen dituzten igeriketa-ikastaroetatik igerilariak erakartzea

### 2. mintzaldia. Javier Toña eta Ander Marquínez. Olabide Ikastola

Toñak eta Marquínezek Gasteizko Olabide Ikastolako eskola-kirolaren arloan egiten dute lan. Eskola-kiroleko entrenatzaileen lana profesionalizatu ahal izateko ikastetxeak jarraitzen duen jardunbidea azaldu dute mintzaldian.

Oinarrian, entrenatzeko aukerak maximizatzean eta ikastetxearen baitan sor litekeen edozein eginkizun osagarritarako entrenatzaileak baliatzean datza:

- Ordu-tegiak osatzeko, entrenamenduak, adinaren arabera, ordu desberdinetan jartzea.
- Entrenatzaileak eginkizun osagarriak egiten jartzea, esate baterako, eskolako ikasleak toki batetik bestera eramaten edo jangela-zerbitzuan.

Ikastolan nolabaiteko profesionaltasunez jarduteko aukera izateak, gainera, partaide izatearen sena ere garatzen du entrenatzaileengan.

### **3. mintzaldia. Judith Torralba. Euskal Gimnastika Federazioa**

Hirugarren profesionalizazio-esperientziari dagokionez, Torralba Euskal Gimnastika Federazioa osatzen duten klubek lortutako autofinantzaketa-maila altuaz mintzatu zen.

Gimnastika erritmikoa adibide paradigmatikoa da, eta beste kirol eta federazioentzat eredugarri izan daitekeela iruditzen zaigu.

Edozein mailatan ematen dituzten ikastaroen kuota bidezko finantzaketak entrenatzaileen lanpostuak profesionalizatzeko aukera ematen die.

Judithen nabarmendu zuenez, ikastaroetatik lortutako diru-sarreraren % 90 teknikarien prozesu profesionalizatzailea bultzatzeko baliatzen da.

### **4. mintzaldia. Antonio Campos**

Jardunaldiko bigarren mintzaldian, Antonio Campos irakasleak guztiontzako kiroleko enpresa-erakunde batean izandako esperientziaren berri eman zuen.

Entrenatzaile-postu batzuen profesionalizazioa funtsean hiru alderdi nagusitan oinarritu behar dela nabarmendu zuen Camposek:

- Giza baliabideen edo pertsonen kudeaketari «izar maila» ematean
- Inguruko azpiegitura-baliabideak (publikoak, pribatuak, eskolakok,...) maximizatzean
- Ahalik eta «kirol puntu» gehienetan ordutegi zabaleko kirol-eskaintza maximizatzean

Aurkezpenak bukatutakoan, bertaratutakoek zenbait argibide egiteko eskatu zieten mahai-ingurukideei.

Horren inguruan, zenbait gogoeta egin nahi dugu: alde batetik, elementu profesionalizatzaile gisa, produktua bera edo «ezaugarriak» saltzen jakitea, eta horren adibide ditugu Getxo Igeriketa Waterpolo eta Euskal Gimnastika Federazioa; beste alde batetik, Antonio Camposek azaldu bezala, espazioa, ordutegia eta eskaintza maximizatzea; eta, azkenik, entrenatzaileen ordutegiak osatzeko Olabide ikastolak eginiko ahalegina.

Azken horri dagokionez, eta Fernando Garrigósek «kirolean ez gara existitzen» zioenean egiten zuen gogoetari lotuz, geure buruari honako hau galdetu beharko genioke: zergatik jotzen ditugu ezinbestekoagotzat eta, ondorioz, profesionalizatzaileagotzat, eskola-umeak garraiatzeko autobuseko edo eskola-jangelako zaintza, eta zergatik ez da, konparazioz, hain ezinbestekotzat jotzen beste hau: kirolaren bidezko prestakuntza, hezkuntzaren oinarritzko elementutzat dugunez?



### 3. MAHAI-INGURUA HERRI ERAKUNDEAK

**Arkaitz Angiozar** Lezoko udaleko kirol-arduradun teknikoa, **Carlos Sergio Bizkaiko Foru Aldundiaren (BFA) Kultura Saileko kirol-aholkularia** eta **Xabier Losantos Eusko Jaurlaritzako (EJ) Laneko eta Gizarte Segurantzako eta Emplegu eta Gizarte Politiketako zuzendaria** mintzatu ziren **udalerrien, foru-aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren** izenean.

**Jesús Gutiérrez** moderatzaileak mahai-inguruaren aurkezteko eztabaida-pizgarri zen gogoeta bat baliatu zuen: jarduera baten profesionalizazioan, eta kirol-jarduerarenean bereziki, administrazioak duen funtzio subsidiario eta osagarria nabarmendu zuen.

Gutiérrez jaunak kirolaren lan-esparruak proposatutako aldaketari egokitzeko herri-administrazioek duten gaitasuna jartzen zuen zalantzan.

Sarrera egin eta gero, moderatzaileak mahaikideen mintzaldiei eman zien bidea.

#### 1. mintzaldia. Arkaitz Angiozar

Azken urteotan bere udalerrian, Lezon, eskola-kiroleko teknikarien dedikazioa profesionalizatu egin dela esanez hasi zuen Angiozarrek mintzaldia. Zerbitzuari egonkortasuna, kalitatea eta jarraitutasuna emateko xedearekin egindako prozesu progresiboa izan zen.

Lezoko eskola-kirola hobetzeko aipatutako hiru arrazoiek honako hau behar dute:

- Teknikariek lan-kontratua izatea
- Behar bezalako lan-baldintzak izatea
- Lanaldi osoa izateko aukera emango duen lan-bolumena bilatzea

Jarraian Lezoko eskola-kiroleko entrenatzaileen soldata eta kostu gordinak azaldu ditu:

Soldata garbiak:

- 1 talde: Hilean 376,72 €
- 2 talde: Hilean 422,14 €
- 3 talde: Hilean 641,27 €

Kostu gordina:

- 1 talde: Hilean 562,19 €
- 2 ekipo: Hilean 623,43 €
- 3 ekipo: Hilean 945,58 €

Iazko 2014-2015 ikasturtean 14 talde zebiltzan lehian. Kopuruei erreparatuta, udalerriarren eskola-kirolerako aurrekontua 78.250 eurokoa izan zen eta horietatik % 75,4, hau da, 59.000 €, teknikariak ordaintzeko baliatu ziren.

Aurrekontuaren % 53, 41.800 €, udalerrriak programari egindako diru-ekarpenarekin ordaindu zen. Foru-aldundiak 8.000 € ordaindu zituen, eta gainerakoa, % 36,3 guraso elkarteek eta programan parte hartu zutenek ordaindu zuten.

Bukatzeko, Arkaitzek beste esperientzia batzuen berri eman zuen eta inguruko herrietan eskola-kirola zer egoeratan zegoen azaldu zuen. Oiartzunen, esaterako, egitura erabat profesionalizatua eta homogenea dute (ikastetxe pribatu bat eta publiko bat), udalarekin elkarlanean.

Erreterian udalak hartzen ditu beregain gizarte segurantzaren gastuak, eta, eskualdeko gainerako udalerriek bezala, lan-orduak maximizatzea proposatzen du eta asmo horrekin entrenatzaile bakoitzari talde bat baino gehiago egokitzea edo entrenatzaile-funtzioa beste eginkizun batzuekin bateragarri izatea, adibidez, koordinatzaile edo monitore lanekin.

Ereintza Elkartean entrenatzaile-lana instalazioko harrera egitearen ardurarekin bateragarria da.

## **2. mintzaldia. Carlos Sergio**

Entrenatzaileen lan-baldintzen egoera jakin nahirik Gizarte Segurantzak zenbait ikastetxeri egindako ikuskaritzen ostean, hiru lurralde historikoen foru-aldundiek, Eusko Jaurlaritzarekin batera, zer ekimen abiatu zituzten azaldu zuen Bizkaiko Foru Aldundiko kirol-aholkulariak.

Ekimenak bi izan ziren funtsean:

- Foru-aldundiak Gizarte Segurantzarekin bildu ziren eta
- Oinarrizko kirolaren boluntariotzari eta lanaren erregulazioari buruzko oinarrizko Gida argitaratu zuten

Bizkaiko Foru Aldundiak, bere aldetik eta baterako ekimenekin batera, ondorengo ekimenak abiarazi zituen:

- Gizarte Segurantzak ikuskatutako eragile «kaltetuekin» informazioa biltzeko bilerak egin zituzten
- Bizkaiko Foru Aldundian aginteko alderdia EAJ dela-eta, Espainiako Parlamentuan ordezkaritza duten EAJko kideekin harremanetan jarri ziren.
- 2013ko azaroaren 5ean, asteartez, Kirolbide Programaren bitartez, «kirol-erakundeetako langileen lan-harremanei buruzko» informazio-bilera egin zuten. Bilerak Juan Carlos Soto Kirol Zuzenbide Euskal Elkarteko

presidenteordea eta abokatua eta Javier Cortazar ASFEDEBIko lege-aholkularia eta abokatua izan zituen hizlari.

- Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko 13/2013 foru arauaren 9. Artikuluari zerga-salbuespenei buruzko beste epigrafe bat gehitu zioten, 31.a, 2015eko martxoaren 2an onartua eta martxoaren 19an argitaratua.

Halaxe dio epigrafeak hitzez hitz:

*«9. artikulua — Honako errenta hauek salbuetsita egongo dira:*

*31. Eskola Kiroleko Egitarauaren barnean edo eskola adinean dauden kirolarientzako Bizkaiko Foru Aldundiak baimendutako jardueretan edo lurraldeko kirol federazioen jardueretan diharduten monitore, arbitro, epaile, ordezkari, kirol arduradun, federazioko zuzendari tekniko eta entrenatzaileen etekinak, lanbide arteko soldataren mugaraino».*

Horrez gain, eskola-kirolaren lan-egoeraren etorkizun hurbilari buruzko hausnarketa egin zuen Carlos Sergiok. Bere iritziz, foru-aldundien administrazioek bi jardun-lerro sustatu beharko lituzkete:

- Ikastetxeko kirol-koordinatzailearen edo zuzendariaren lanpostuak bultzatzea. Hori sustatzeko diru-laguntzak sortzea.
- Eskola-kirolaren erakunde sustatzaileak batzeko aukera ematea. Kirolaren hastapenaren kudeaketa-unitatea ez da zertan ikastetxea izan.

Azkenik, Carlos Sergiok baikor begiratzen dio etorkizunari, aurreikusten baitu aurrerapausoak, motelak izanagatik, bide onetik doazela.

### **3. mintzaldia. Xabier Losantos**

Losantos Eusko Jaurlaritzako Laneko eta Gizarte Segurantzako eta Enplegu eta Gizarte Politiketako zuzendariak, iritzi bat aurkeztuz hasi zuen mintzaldia eta bi ekintza-lerro proposatu zituen gero:

Sarrera: Eusko Jaurlaritzako zuzendariak esan zuenez, Eusko Jaurlaritzak ez zuen parte hartu Gizarte Segurantzak ikastetxeei entrenatzaileen lan-baldintzak ezagutzeko egindako ikuskapenetan, aurkako jarrera erakutsi baitu beti.

«Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak» eginiko ikuskapenen asmoa sektorearen profesionalizazioa ez zela uste du eta bazela hor inoiz adierazi ez zuten ezkutuko nahitasun bat.

Ikuskapenek zalaparta handia sortu zuten sektorean eta euskal administrazioek, Carlos Sergiok azaldu bezala, erantzun egin zuten haien aurrean. Ikuskapenak, gainera, kirol federatuaren esparrura ere hedatu ziren, hainbat klub ikertu baitzituzten. Kirol federatuaren esparruan ere berehalako erantzuna eman zuten: klubak greba eta lehiaketak geldialdia.

Kirol federatuaren esparruak emandako erantzunak, orain arte behintzat, Gizarte Segurantzaren ikerketa geldiaraztea lortu zuen.

Uste dugu ikuskapenen helburua ezkutuko ekonomiako lan-poltsa susmagarriak ezkututzen zituzten zenbait sektore ikertzea izan zitekeela.

Lehenago aipatu bezala, bi ziren Xabier Losantosek proposatutako ekintza-lerroak:

1. Egokitzapen-plana Jardunaldi honetan Adimen enpresaren azterlanak, Antonio Camposek eta Fernando Garrigósek ongi deskribatu duten egungo egoeratik, kirol-entrenatzailearen legezko estatus berri baterantz.

Egokitzapen-planak beharrezko du:

- Profesionalen eta boluntarioen esparruak bereiztea.
- Zuhurtzia. Lan-esparruaren profesionalizazioa, bai eskola-kirolean, bai kirol federatuan, ez da goizetik gauera gertatuko eta ez hala gertatzea komeni ere.

2. Itun soziala. Egokitzapen-planaren bilakaera eskola-kirolean zein federatuan esku hartzen duten eragile guztien artean adostutakoa izango da eta baita indar politiko guztiek adostutakoa ere. Gehiengoak onartutako «egokitzapen-plana» izango da.

Hirugarren mahai-ingurua amaitutakoan, jardunaldiak oro har emandakoa nabarmendu zuten labur-labur.

### 3. BUKATZEKO, AZKEN HAUSNARKETAK

**Kirol arloko sektore profesionalari buruzko ikuspegi kritikoa.**

Eskola-kiroleko entrenatzailea aitorpen eskasegia duen lanbide profesionala da. Haren balioaz ohartzeko beharrezkoa da eskola-kirolaren ardura duten administrazioen ekintza irmoa eta foru aldundiena batik bat, bide horretatik lortuko baita:

Ikastetxeetako arduradunei eta Guraso Elkarteei ulertaraztea benetan premiazkoa dela talde bakoitzaren buruan hezitzaile espezializatu bat egotea.

Aukera ona da orain José Antonio Marina filosofo eta irakaslearen esaldia hona ekartzeko: «Entrenatzailea da irakaskuntzarekin konpromiso handiena hartzen duen irakaslea eta, ikaslearekin batera, bere burua ere etsaminatzen duena»

Bestalde, ordainsari handia duten gutxi horiek alde batera utzita, kirol federatuak maila eta eskala guztiak hartzen ditu, hastapenetatik mailarik altuenera. Hona hemen haien faktore komunak:

- ✓ Klub ekonomikoki ahulak
- ✓ Gazteagoekin alderatuta, senior-kategoriako taldeei lehentasuna ematen dieten klubak Errendimenduarekiko interes handiagoa dute prestakuntzarekiko baino, baita kategoriarik baxuenetan ere.
- ✓ Klub asko harro daude eginkizun eta funtzio gehienak boluntarioek egitea lortu dutelako, baita eskakizun tekniko handiko postuak ere, eta horixe hartzen dute arrakastatzat.

Beste jarduera-eremu batzuetan, kirol-zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa baten bitartez udalerrri batean, gimnasio batean edo fitness-zentro batean jarduten duen monitoreak edo entrenatzaileak eskola-kirolean edo kirol federatuan jarduten duen langilearen antzeko arazoak ditu:

- ✓ Lan-eskaria ordu gutxirako izan ohi da
- ✓ Lanaldi osoak lortzeko arazoak
- ✓ Balioaniztun izateko beharra, lan-jarduera bat baino gehiago izatea errazagoa izan dadin.

Hona hemen labur-labur, eskola-kirolerako iradokitako prestakuntzaz gain, kirol-asoziazionismoaren kultura-ohiturek eta sektorearen egoera orokorrak eragindako kalteak arintzeko zenbait konklusio:

### **Pertsonarekin lotutakoak:**

- Legez nahikoa den prestakuntza
- Alternantziako prestakuntza duala
- Prestakuntza iraunkorra
- Tituluari balio erantsia ematea. Jarrera profesionala

### **Kirol-erakundeekin lotutakoak:**

- Eskaintzaren ordutegiaren aukerak maximizatzea, hartara zerbitzuen erabiltzaileek eta teknikariek aukera zabalagoa izan dezaten
- Teknikarien lana enpresako beste eginkizun batzuekin osatzea.
- Teknikarien etengabeko prestakuntza sustatzea.
- Funtzio teknikoak eta boluntarioak bereiztea eta bateragarri eta sinergiko egitea.
- Kirolak, merkataritzaren eta industriaren kide gisa, sektore horiei eskaini diezaieken guztia eskaintzea. Erakundearen prestakuntza teknikoa hobetearren nagusiki.

### **Herri-erakundeekin lotutakoak:**

- Kirolarekin lotutako lanbideen euskal legea onartzea.
- Boluntariotzaren eta profesionalismoaren jardute-eremuak bereiztea.
- Eskola-kirolaren buruan langile profesional tituludunak egotea ahalbidetuko duten arauzko bideak ezartzea.
- Kirol-teknikariei dagokienez, lan-arloaren inguruan indarrean dauden legeei egokitzeko planari bidea emango dion itun soziala lortzea
- Eskola-kirolarentzat edo kirol federatuarentzat egon litezkeen diru-laguntzei buruzko dekretuek sektorea profesionalizatzeko izaera argia izatea.